

DIRU ITURRIAK:

Gure proiektua martxan jarri baina lehen 1.000.000€ beharko ditugu. Horretarako diru iturri batzuk beharko ditugu eta gure finantziario iturri nagusia Bezoya izango da. Honek diruaren zati handi bat jarriko du. Gure botiletan bere marka jarriko dugu, izan ere, gure botilen ura haien enpresarena izango da eta diruaren kantitate gehiena jarriko du.

Hasteko, urtean 253 egunetan egongo da gure enpresa irekita. Egun bakoitzean saltzea espero dugun kantitatea botiletan eta pack tamainetan banatu dugu. Lehendabizi botilekin hasiko gara, urtean 500.000 botila ekoiztuko ditugu, egunean 2.000 inguru izango dira. Kantitate hori ekoizteko gure kostuak 150.000€koak eta guk botila 1,5€tan salduko dugu, beraz gure etekinak 600.000€koak izango dira.

Baxerarako pack handietan urtean 100.000 pack ekoiztuko ditugu, egunean 400 inguru izango dira. Kantitate hori ekoizteko gure kostuak 1.600.00€koak eta guk pack-a 18€tan salduko dugu, beraz gure etekinak 200.000€koak izango dira.

Pack ertainetan urtean 250.000 pack ekoiztuko ditugu, egunean 1.000 inguru izango dira. Kantitate hori ekoizteko gure kostuak 2.000.000€koak eta guk pack-a 12€tan salduko dugu, beraz gure etekinak 1.000.000€koak izango dira.

Pack txikietan urtean 300.000 pack ekoiztuko ditugu, egunean 1.000 inguru izango dira. Kantitate hori ekoizteko gure kostuak 600.000€koak izango dira eta guk pack-a 8€tan salduko dugu, beraz gure etekinak 1.800.000€koak izango dira. Pack txiki kantitate handiagoa saltzea espero dugunez beste pack-etan baino kantitate handiago ekoiztuko dugu.

Ondorioz, gure urteko etekinak guztira botilak eta pack-ekin 3.600.000€koa izango da.

Esan bezala, gure finantziario iturri nagusia Bezoya izango da. Honek, beharrezko diruaren %75 jarriko du 750.000€ eta %25a 250.000€ guk jarriko dugu. Gure egitasmoa martxan jarri eta gero gure urteko irabazien %50 1.800.000€ Bezoyarentzat izango da. Ondorioz beste 1.800.000€ gelditzen zaizkigu guretzat. Behin enpresa martxan jartzerakoan eta irabazikiak edukitzean diru hau erabiliko dugu kostuak ordaintzeko. Salmentak espero duguna baina handiagoak baldin badira gure ekoizpena handitzearen inguruan pentsatzen hasiko gara baita ere.